



URRUÑA

Mandobidexka

Distantzia 8,8 km	Desnibela 420 m	Iraupena 3h00	Tipologia Itzulia	Zedarriak PR seinaleak (horia) 1. zatitik 4.era, (gorria eta horia) 5. zatian
-----------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	---

Urruñatik (A63 autobideko 2. jalgebidea), hiri inguruko biribilgunean, Ibardingo lepora eta Azkainerako norabidean segitu (D4). 3,5 km urrunago, D4 eta D404 errepideen arteko elkargunean, eskuinera joan Ibardingo lepoko errepide hertsia igotzeko. 2,5 km gorago, ibilaldiaren abiapuntua errepideko bihurtune lau batean kokatzen da, Erleen lepoa deitzen zaion lekuan (bidean abiapuntua ezker, ibilgailua errepide bazterrean aparkatu, eskuinaldean).

GPS datuak: **UTM : 606687 - 4797292 Lat/Long : 43.32089/-1.68423**

Ibilaldi oso ederra Urruñako gainaldeetan, muino panoramikoak zeharkatzen dituena eta Ibardingo lepora iristen dena, behiala merkataritzek, mugalariek eta kontrabandistek egun eta gauze erabiltzen zituzten bide zaharretariko batetik. Historia sakona duen itzulia, ipuinak eta trikuharrien aztarnak batzen dituena.



1. ZATIA > Erleen lepotik Airelekuko oihanera

UTM: 606687 - 4797292. Erleen lepoan (244 m), errepidearen ezkerrean, xeila batez zirkulazioari hetsia den bidea hautatu (ibilaldia seinalea). Oihanetik ateratzen da, Larrun gailurra aurkitzen du, eta goratasun argi batera heltzen da. 30 m jaitsi lepo belartsu baterantz (266 m), eta iratzeen artean, eskuin igotzen den bide zabala segitu. Aireleku goi-zelaia zeharkatu, aurria iragan, eta ezkerrean doan bidexkan jaitsi, zure parean. Y itxurako bidegurutzean (252 m), ezkerreko bidea hautatu, oihanean. Bigarren Y gunean, berriro ezker hartu, igoeran. Hirugarren Y gunean, eskuinera jaitsi.

2. ZATIA > Airelekuko oihanetik Herburura (D404 errepidea)

UTM: 607062 - 4797839. Bidegurutzean (215 m) lurrezko bidea segitu eskuinaldera jaitsiz (beste bidexkei kasurik ez egin). Bideak haritz lodi baten azpian bihurtune zorrotza marrazten du (Urruñako auzoetarako ikuspegia); erreka bat iragan eta, Y itxurako bidegurutzean, eskuineko bidea hautatu, harrietan azkar jaisten dena. Goi-zelaiaren eta bere iratzediaren sarbidean, ezker hartu bide berri batean (2 zuhaitz hil); bidexka batek hartzen du segida. Oihanean, zubitxo eta gero, ezkerrean igotzen den bidexka hartu. Argiguneak eta oihanak tartekatzen ditu eta beste hiru erreka moztzen. Pentze hesi batera iristean, ezkerrean doan bidexka segitu, burdin hesiaren bazterretik.



3. ZATIA > Herburutik Moko lepora (D404 errepidea)

UTM: 606550 - 4798458. Bide zabalago bat Ibardingo leporako errepidera iristen da (110 m): D404 zuhurki moztu eta, bi haritz lodien gibelean, erreka batera jaisten den bidexka hartu. Ibitik iragan; aparkaleku ttipian, bidexka baten abiapuntua aurkitu ezker (atekka). Mandobidexka da, laster Andureta ibarxka guzira igoko duena, beti erreka ezkerreko hegian egonez. Gorago, haritz eder batetik iragan (laugunea), atsedent hartzeko leku ezin hobea, eta bide belartsu zabaletik igotzen segitu, ibarxkaren ezkerrean urruntzen dena (eskuineko bidexkari kasurik ez egin). T itxurako sei haritzen elkargunean, eskuineko bide berria segitu.

4. ZATIA > Moko lepotik Ibardingo lepora

UTM: 606051 - 4797011. Bide zabal baten bihurtune iritsi (325 m), Larrunerako ikuspegiarekin: ezkerrean segitu. Kasik laua, oihana zeharkatzen du, ikuspegi zenbait eskaintzen ditu, eta urrunago, Ibardingo lepoko bentan azpitik iragaten da. Bidearen puntan, ezkerreko aparkalekua zeharkatu eta errepidetik Ibardingo leporaino jaitsi. Lepoko biribilgune ttipian (benta Gorria), errepidearen ezkerretik ibili 50 m-tan (Urruñako norabidean), "Lapurdi" bide seinalea arte.

5. ZATIA > Ibardingo lepotik Erleen lepora

UTM: 606682 - 4796118. "Lapurdi" bide seinaletik (315 m), mundruna utzi eskuineko lurrezko bidea igotzeko, gorri eta zuriz seinaleatua. Bidea atekka batera heltzen delarik, eskuineko bidexka belartsua igo, zut-zuta, hesiaren bazterretik, eta iratze artean. Lepo belartsura iritsi (385 m), Ibardingo leporako ikuspegiarekin eskuin, eta Larrunera ezker (ezkerreko lehen bideak La Redoute des Émigrés Gotorlekurako joan-etorria ahalbidetzen du). 30 m-tan segitu 5 bidexkan elkargunerantz: ezkerreko bigarrena hartu, jaitzian (Biarritz ikusmiran). Zelaigune batetik iragan (harginen kaia) eta, trikuharri eroriaren ondoren, pareko jaitzian segitu, oihanean. Beherean, xeila eta gero, ezkerreko bidexkan egon abiapuntura itzuli arte.

INTERESGUNEAK

❖ Elorri zuria (0,85 km)

Borda aurriaren ate aitzinean elorri zuria deitzen zaion zuhaixka bat bada. Hiru gingileko hostoei, baia gorri eta arantza zorrotzei esker ezagut daiteke. Txoriek (txepetxek berdin) aldaxkan trinkotasunean egiten dute oiantze. UTM: 607406 - 479671

❖ Mandobidexka zaharra (3,75 km)

Mandobidexkan, lauza arrokatsuetako higadura aztarnek ez dute duda izpirik uzten behiala bide hartatik bidaiari eta merkatarik asko ibiltzen zirelakoan, hainbesteraino non gurdien errotak oraindik grabatuak diren harrian. UTM: 606227 - 4798424

❖ Historiaren lekukoak (7,4 km)

Lepo hartatik, ondareko balioz-tatze bidexkarekin bat egiten dugu. La Redoute des Émigrés gotorlekura heltzen ahalgo gara (Napoleon garaiko gerlen aztarnak), eta protohistoriaren lekukoak aurkitzen ahalgo ditugu: tumulu batean, zilo soil batek trikuharri baten kutxa dela salatzen du (trikuharri zaharra); beherago, etzana den harri bat, beste trikuharri baten hondarrak, eroria, K.A.ko 3000 urte ingurukoak. UTM: 606879 - 4796198

❖ Harginen kaia (7,8 km)

Laugune baten erdian den paretazuzen harrigarri batekin, gune hau mendiko baliabideen ustiaketaren lekuko izaten da. Goi-zelai hau "Harginen kaia" izateagatik famatua da, erauzketa-guneetatik ateratako harrien kargatze-gune zaharra. UTM: 606879 - 4796198

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

Herburua, kontuz ibili D404 departamenduko errepidea zeharkatzean (trafiko aintz bada) UTM : 606550 - 4798458

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

6,7 km Ibardingo lepoko bentak, saltegiak eta jatetxeak UTM: 606552 - 4796046

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziartzaren duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaleetika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└	┘└	▶
Norabide okerra	✕	✕	✕	✕

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAINNE, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.